



4 GIZARTEA

Kabalgata osatzeko herritarrak behar ditu MEGABA-k

Urteroko Errege Magoen kabalgata egiteko boluntario bila ari da MEGABA (Melchor, Gaspar eta Baltasar) elkarteak. Aspaldidanik datorren ohitura hau galtzeko zorian dela aurreikusten dute antolatzaileek eta herritarren inplikazioa eskatu dute. Hala ere, aurreko urtean bezala, aurten ere marrazki lehiaketa egongo dela aurreratu eta kabalgatan berrikuntzak izango direla ohartarazi dute.

4 ELKARRIZKETA

Etexzarreta 3. Gipuzkoako oilagor ehiza txapelketan

Azaroaren 11n eta 18an Leitzarango basoetan jokatu ziren Gipuzkoako eta Euskal Herriko Oilagor Ehiza txapelketetan lan bikaina egin zuten Xabier Etexzarreta harakinak eta Truk haren zakurrak. Aipatutako bi txapelketetan lehen bosten artean sailkatu ziren: Gipuzkoako txapelketan hiru garren postuan eta Euskal Herrikoan bosgarrenean. Etexzarretak argi du lortutako balentriaren zati handi bat Truk zakurrari dagokiola.



Jalguneko lagunak atzean herritar mordoia dutela, Okendo plazan ezkutaketa jolasa egin eta txokolatada bero-beroa dastatu zuten musikaz girotuta.

Pausoka-pausoka, ametsak betez

Jalguneren festa erraldoiak larunbateko arratsalde hotza berotu zuen

Pausoka egiten omen da bidea, urratsez urrats, eta Jalguneko Elkarteak 20 urte pasatxo daramatza elkartasunaren bidea jorratzen, herriko ezinduekin lanean. Larunbatean jaialdi erraldoia antolatu zuten eta musika, dantza, mozo-ro-desfilea, batukada, ezkutaketa erraldoia eta txokolatada egin zituzten festa giroan. Ikustekoak ziren Jalguneko lagunak, hauek zaindu eta maitatzen dituzten begiraleen eta jaialdian parte-hartu zuten herritarren alaitasun aurpegiak. Irribarreak egiten gaitu berdin.



Kultur-etxean eginiko jaialdia umoretsua eta koloretsua izan zen.

Jaialdi erraldoia prestatu zuen Jalguneko larunbata arratsaldean. Arratsaldeko 18:00tan hasi zen kultur-etxeko emankizuna eta azken hilabeteotan landu dituzten antzerkiak, dantzak eta koreografiak eskaini zituzten ia guztiz bete zen kultur-etxeko areto nagusian.

Gainera, Semblante Rocie-

ro-ko lagunei "zorianak zuri" abestu, euren grabatutako bideo proiektzioak ikusi eta mozo-ro desfilea festa handiaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren herritarrek.

Festak etenik ez Okendon

Bistan da Jalguneko lagunak ez direla erraz nekatzen, eta kultur-etxeko festaz gain,

Okondora eraman zituzten batukada-kalejiran parte-hartu, ezkutaketa jolasa egin, ehundik gora lagunekin "pausoka-pausoka" ereserkia dan-

tzatu eta txokolate beroa dastatu zituzten egunari amaiera emateko. Ametsak betetzen jarrai dezazuela, zuengatik eta zuen lagunengatik.

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521



ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua

Baserri pateak



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

UDALA

Diru laguntzak eskatzeko epea zabalik

Lehenengoz Gazteria arloko ekimenentzat diru partida bat dago

Pablo Barrio alkatea eta Estitxu Alkorta egindako agerraldian udalaren diru laguntzak emateko irizpide markoa lehenengoz finkatu izana azpimarratu zuten. Buletinean argitaratu dira gehienak jada, eta elkarte zein norbanakoek hauek eska ditzakete.



Alkatea eta Estitxu Alkorta ostiralean egindako agerraldian.

Maider AZURMENDI

Pablo Barrio alkatea pozik azaldu zen lehenengoz Lasarte-Oriako udalean diru laguntza banaketa egiteko prozeduran marko objektibo bat ezarri delako: "diru laguntzen banaketa arautzeko ordenantza bat onartu zen aurreko agintaldian baina hau aplikatzeko irizpiderik ez zegoen, atzerapena ekarri badu ere, azkenean diru laguntza hauek objektiboki banatzeko irizpideak finkatu ditugu betiko".

Objektibotasuna azpimarratu nahi izan zuten udal ordezkariak, horrela udalak diru laguntzak modu gardeanean banatzen dituela ziurtatzen delako "teknikariak euren lana egiteko irizpide zehatzak dituzte eta prozedura gardena bermatuta geratzen da".

Estitxu Alkorta esan bezala urtero argitaratuko dira finkatutako oinarri orokorrak eta ondoren gaikakoak "dagoeneko gehienak publikatu dira".

Eskaeran aldaketak

Udalak dirua banatzeko protokoloa ezartzeaz gain, elkarte zein herritarrek hauek nola eskatu behar dituzten ere alda-

tu da. "Elkarteen erregistro bat sortu da eta hau oinarri inportantea izango da aurrera begira". Bi tramite egin beharko dituzte eskatzaileek deialdi honetan parte hartzeko, erregistroan izena eman behar dute lehenengo; alta eman eta diru laguntzaren eskaera egin ondoren. "Erregistroa beti izango da irekia aurrerantzean edozein momentutan alta emateko aukera egon dadin, diru laguntzen eskaera berriz, orain zabaldu da eta urtarrilaren 7a izango da hauek eskatzeko azken eguna".

Lehenengo aldiz diru laguntza gehienak batera argitaratu dira, lana "erraztuko" da horrela. Kiroletako 2012ko laguntzak dira oraindik argitaratu ez eta urtarrilak 7 baino beranduago eskatu ahal izango direnak.

Laguntzak eskatzeko oinarri guztiak Udalaren webgunean daude eta beharrezko kasuetan txantiloak ere agertzen dira. Hala ere, "ardura duten departamentuek orain arte diru laguntzak eskatzen zizuztenekin eta aurten ere Udalera zuzendu direnekin harremanetan jartzeko asmoa dute prozeduren azalpenak emateko". Hala ere, prozedura berria denez udalarentzat zein herri-

tar edo elkarteentzat, bilera informatiboak egingo dira: "diru laguntzak nola eskatu behar diren azaldu eta zalan-tza guztiak argitzeko baliagarriak izango dira".

Guztira 110.000 euro

Gazteria atalak aurten lehen aldiz diru partida bat du. Gazteriari orokorrean eta aisialdi esparruko jarduerak diruz lagunduko dira, guztira 5.723 euro bideratuko dira gazteek kontzertuak, hitzaldiak edo bestelako jarduerak antola ditzaten.

Gainontzekoetan, Festak alorrean ohi bezala inauteri eta San Pedro jaietako jarduerak lagunduko dira: konpartsak edo jarduerak garatzeko 7.907 euro izango dira eta San Pedrotarako 7.228 euro. Kulturaren guztira 9.070 euro izango dira, hezkuntzan, 7.494 euro eta kirolean berriz, 2012ko deialdiaren baitan guztira 30.200 euro daude atalka banatuta. Gizarte zerbitzutan 17.200 euro dira eta Kooperazioan 38.000 euro aurre ikusi dira.

Hitzarmen bidezko diru laguntzen prozedura finkatuta zegoenez, hauetan ez da aldaketarik izango aurreratu zuten moduan.

INAUGURAZIOA

Kontu kantoï Saltogelaren inaugurazioan

Ostiralean, Kontu Kantoï ipuin-kontalariak izan ziren Kale Nagusia 27 zenbakian ireki den Saltogelaren inaugurazioan.



Bertan bildu ziren haurrek adi entzun zituzten Bea Egizabalek kontatutako ipuinetan. Batzuk gainera, kontaketan parte hartu ahalizan zuten haien iritzia emanaz.

AMARAUN KLUBA

Ipuin kontalaria eta Udako Txokoetako argazkiak

Gaur, abenduaren 3a, Euskararen eguna da. Hori dela eta Amaraun Klubak ipuin kontalarien saio bereiza antolatu du 18:00etatik 19:00etara, Ludotekan. 3 eta 8 urte bitarteko haur eta gaztekoek milaka abentura bizi eta pertsonaia bereziak ezagutuko dituzte ipuinen bitartez.

Era berean, Ttakuneko aisialdi sailak jakin arazten du, Udako Txokoetako argazkien CDak gaur arratsaldean ipuin kontalarien ordutegi berdinean, 18:00-19:00, banatuko dituztela. Ez da beste egunik izango hauek jasotzeko.

DANOK KIDE

Jaiotzen Lehiaketa

Danak Kide elkarteak, berriro ere, jaiotzen lehiaketa antolatu du. Honetan, banaka edo taldeka hartu daiteke parte lehiaketa, baina lan bakarra aurkeztuz.

Jaiotzak, gehienez, 80x60 cm-tako neurriak izan behar dituela eta, batez ere, ez dela onartuko hondo sendorik ez duen jaiotzarik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Jaiotzarekin batera, gutunazal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzirik entregatu behar da. Gauzak honela, jaiotzak abenduaren 20 eta 21ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara aurkeztu behar dira, Danok Kideko egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13 zenbakian.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, jaiotzak ikusgai izango dira San Pedro parrokiaren eta saribanaketa urtarrilaren 1ean izango da.

KIROL INSTALAZIOAK

Ordutegi aldaketa zubia dela eta

Lasarte-Oriako Udalak Kirol Instalazioetan 2012. urterako onartua duen egutegiak agintzen duenez, datorren Abenduaren 8ean egun osoz Kirol Gunea (Michelin) itxita egongo da. Abenduaren 6an berriz, 9:00etatik 13:00etara egongo da irekita.

Hala nola, erabilitzaileei jakinarazten zaie Lasarte-Oriako Udalaren Kiroldegia (igerilekua) abenduaren 6an eta 8an, goizez, zabalik egongo dela 9:00etatik 13:00etara. Egun honetan abonatuak beste Udal Kirol Instalakuntzak erabiltzeko aukera izango dute.

INGURUMENA

Olio birziklatzeko sustapen kanpaina

Sukaldean erabilitako olio gaika bil daitekeen hondakina da eta San Marko Mankomunitateak bilketa hau sustatu nahi du. San Marko Mankomunitateak Ekograsekin batera, kanpaina berria martxan du hiritarren partaidetza sustatzeko helburuarekin etxeko olio birziklatzen dituztenak saritzeko sistemarekin. Izan ere, datorren urtean, olio birziklatzen duten lagunek olio birziklatzen duen eskualdeko jatetxeetako batean bi lagunentzako afora baten zozketan parte hartu ahal izango dute.

Aurreko astean eta honetan olio birziklatzeari buruzko liburuxka berriemaita bana uzten ari dira San Marko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako postontzietan 12 itsasgarriekin. Auzokideek edukiontzi larantzetan edo olio biltzen duen furgonetan itsasgarria duen botila olio uzten duten aldiro parte hartuko dute zozketan. Ekograsek, olio jasotzen duenean, ausaz eta hilero, saritutako ontziak aukeratu ditu eta San Marko Mankomunitatea jarriko da hurrengo saridunekin eskualdeko jatetxe batean bi lagunentzako otorduaren saria jaso dezaten.



Kadete mailako derbian, Ostadar garaile.- Larunbata goiza hotz esnatu zen. Goizeko 10:00ak aldera, jokalariek berotzen hastean, zelaia zuri zegoen, izotzak hartuta. Halere, partiduari ekiterako gradutxo batzuk gora egin eta jende asko bertaratu zen herriko taldeen arteko derbia ikustera. Ostadarrek erraz irabazi zuen, 4-0ko emaitzaz, eta partidua hasi eta buka izan ziren Texas Lasartearra baino gehiago. Golegileak: Otamendi, Rama, Goikoetxea eta Barquero.

Kabalgatak lagunak behar ditu

► Errege kabalgata antolatzen duen MEGABA elkarteak herritarren parte hartzea eskatzen du elkarlanean kabalgata hobetzeko ► Haurrentzako marrazki lehiaketa martxan jarri dute

MEGABA (Melchor, Gaspar, Baltasar) elkarteko kideek boluntarioak behar dituzte Errege Magoen kabalgata antolatzeko. Ohitura hau galtzeko arriskuan ikusten dute herritarren parte hartzea lortu ezean. Aurtengo kabalgatak berrikuntzak izango dituela aurreratu dute eta iaz egin bezala, haurrentzako marrazki lehiaketa martxan dela jakitera eman dute. Irabazleen artean, marrazki bat hautatuko dute kabalgata iragartzen duen kartela izan dadin. Haur zein helduak animatu nahi dituzte hone-tan parte hartzeko.

Maidar AZURMENDI

Danak Kide elkarteak urteetan antolatu zuen Errege Magoen kabalgata, 2010. urtea arte. Ordura arte elkarteak udalarekin hitzartzen zuen kabalgata eta Danok Kideko bazkideen artean eta boluntarioekin antolatzen zuen guztia. Urte hori izan zen beraientzat azkena MEGABA (Melchor, Gaspar, Baltasar) elkarteko kideek azaldu moduan.

2010ekoa antolatzen lagundu zien Txus Alonso herritarrak eta berak hartu zuen orduan lan honen koordinatzailearen lekukoa. Alonsok berak azaldu moduan, lehenengo pausua betidanik kabalgatan laguntzen edota parte hartzen zutenekin hitz egitea izan zen Danok Kidekoek euren erabakiaren berri eman ziotenean. "Lehen bilera hartatik taldetxo bat ateraz, Boris Nogales tarteko, eta kabalgata aurrerantzean nola antolatuko genuen eztabaidatzen hasi ginen".

Kabalgatari utsiz

Denek argi zuten kabalgatarekin aurrera egin behar zela, ezin zela hala nola galtzen utzi eta horrela eratu zuten MEGABA. "Elkarte bezala antolatu ginen udaletxearen diru laguntza eskatu ahal izateko" izan ere, finantziario falta da oztopoetako bat elkartearentzat.

"Udalak ematen duen laguntzarekin dena antolatzen saiatzen gara baina ez da nahikoa eta bestelako finantziario bideak lantzen ditugu, komertzioekin adibidez".

Horretaz gain, elkarteko kideek ekarpen txiki bat egiten dute, gutxienezkoa 10 eurokoa da eta "hortik gora bakoitzak ahal edo nahi duena ematen du, dena da ongi etorria".

Desagertzeko arriskuan

Nahiz eta elkartearen 23 kide izan, "lau pertsona gara

aurrez dena antolatzen" azpimarratzen du Boris Nogalesek, hau dela eta "elkarteko kide berriak bilatzeaz gain, egun horretan laguntzeko prest izango diren boluntarioak behar ditugu".

Aurrez horrelako kabalgata bat antolatzeak lana du eta lan taldea handiagoa balitz, errazagoa litzateke dena. "Kabalgata bera desagertzeko arriskuan ikusten dugu, gazteak, gurasoak inplikatu ezean, ezingo dugu aurrera egin, gutxi gara eta lana handia, jantziak prestatu, jendea antolatu, kabalgataren bidea zaindu, karroza egin, bokatak prestatu..."

Aurrez kabalgata antolatzen arituko den lan taldea handitzea da helburu nagusia MEGABAko kideentzat, ondoren egunean bertan lan egingo duten boluntarioak topatzea.

Danak Kidek antolatzen zuenean 15 pertsona ziren aurre prestaketa lanetan, orain lau, bost lagun dira.

"Iaz adibidez, bidea zaintzea egokitu zitzaidan, ibilbide hasieran leku batean egon eta aurrera egin ahala, ni lekuz aldatzen nintzen errepide mozketak egiteko, horretaz gain, oholitza goizean goiz muntatzea egokitu zitzaidan eta dena amaitzean, egunean bertan, kentzea" azaltzen du Txusek.

Desfilean 100 pertsona inguruk parte hartzen du urtero "parte hartze handiak adierazten digu herritarrek oraindik kabalgata nahi dutela herriko kaleetan barrena". Iaz adibidez Jalguneko kideek parte hartu zuten kabalgatan eta aurten ere bertan izatea espero dute antolatzailuek.

Horretaz gain, kabalgata bera hobetzea posible litzateke kide berrien ideia eta ekimenei esker "jende gaztea gara taldean eta gauza berriak egiteko gogoa daukagu, kabalgata berri, agian ibilbidea luzatu, finantziario lortzeko esparru berriak landu, baina azkenean lan asko da



Errege Magoak bere laguntzaileekin herrian hainbat geldigune egiten dituzte. Okendon eskutitzak jasotzen dituzte urtero.

eta errazena urteroko kabalgata antolatzeko da".

Herrian Olentzero eta Errege Magoentzat lekua dagoela argi dute MEGABAkoek. "Egun umeen artean agian errotuago dago Olentzero baina Errege Magoek oraindik harrera ona dutela ikusten dugu urtetik urtera, gure artean ohitura garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Gure seme alabekin kabalgata ikusi nahi dugu Lasarte-Orian, gure haurtzaroen gure gurasoekin egin genuen bezala".

Marrazki lehiaketa

Aurreko urteetan egin bezala marrazki lehiaketa antolatu du MEGABAk. Irabazleen artean bat hautatuko da kabalgata iragarriko duen kartela osatzeko. Marrazketa lehiaketan parte hartzeko azken eguna abenduaren 21a izango da eta marrazkia Manuel Lekuonan jarri den postontzi berezian utzi behar-ko da.

Gaia "noski Errege Magoak dira eta adinaren arabera hiru taldetan banatuko dira marrazkiak", hiru eta sei urte artekoak, zazpi eta bederatzirte bitarteko maila eta hamar eta hamabi urte artekoak.

Ume bakoitzak marrazki bakarra aurkez dezake A4 tamainan eta honetan, atzeco aldean, haurrazen izen abizen eta adina jasoko da baita aita, ama edo tutore legalaren datu pertsonalak, izen abizenak, helbidea, telefono zen-



baki bat eta posta elektronikohelbidea.

Adin talde bakoitzeko irabazle bat hautatuko da eta "irabazle hauen artean kartel-erabiliko dena hautatuko da, ondoren gure weban zintzilikatuko ditugu marrazki guztiak www.megaba.org".

Urtarrilaren 5a

Errege bezperan egun osoan zehar eskutitzak jasotzen aritzen dira erregeen laguntzaileak eta postontziak jartzen dira Okendo plazan. Berrikuntzak izango direla aurreratu dute "baina oraindik goiz da dena esateko, hori bai, karrozak ixura berria izango duela aurreratu daitezke".

MEGABAko kideek herritarrek parte hartzeri animatu nahi dituzte. "Eskoletako guraso elkartei, lagun koadrilei... kabalgata antolatzen laguntze-

ra animatu nahi ditugu. Elkarlanean dena errazagoa litzateke eta ohiturari eusteagatik merezi duela uste dugu".

Elkarteko kide izateak "ez du ezer egitera behartzen, laguntza besterik ez lortu nahi, ekonomikoki aportatu nahi duenari esker onez hartuko zaio laguntza eta bere lanarekin egun horretan edota aurretik aportatu nahi duena ongi etorria izango da" hori bai, elkarteko kideen seme-alabek lehentasuna dute desfilean parte hartzeko garaian.

Parte hartzeko prest dauden herritarrek elkarteko webgunean aurkitzen diren telefono eta helbideen bitartez jar daitezke kontaktuan baita amigos-dela-cabalgata@hotmail.es helbidera idatzita ere. Laster bilera irekia egiteko asmoa du elkarteak eta honetara herritar guztiak daude gonbidatuak.

Presoen hitzak eta egoera herrira ekarriz

Flash-moba, filma eta olerki irakurketa izango dira ekintzetako batzuk

“Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik” urtero euskal presoen hitzak eta egoera gure herrira ekartzen ditu Presoen lagunak taldeak. Aurten ere, Herrirarekin elkarlanean ekintza ugari antolatuko dituzte Eguberrietan. Horien artean, noski, olerki eta eskutitzen irakurketa dago eta aurten gainera, flash-mob bat ere antolatu dute.

Nerea EIZAGIRRE

Badira bi urte Presoen lagunak taldeak espereetatik ideia bat jaso zuela, haiek idatzitako testuak herrian zabaltzea.

“Poesia emanaldia egiteko proposamena izan genuen. Presoen olerkiak batu eta beste formato bat ematea pentsatu genuen”, aipatu digu taldeak.

Xirimiri elkartearen izan zen lehena eta iaz Manuel Lekuona kultur-etxera eman zuen saltoa. “Inpresio ona izan genuen eta jendeari gustatu zitzaion,” adierazi digute.

Honela, Lasarte-Oriaren Eguberrietan ekimen berezia sortu zen, “Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik” olerki irakurketa.

Herriarekin elkarlana

Taldeko kideek aipatu digutenez, mugimendu honetan herritar desberdinek parte hartzen dute. “Ez gaude pen-

tsamendu berekoak, ez alderdi berekoak, bai ordea giza eskubideen aldekoak, eskubide zibil eta politikoa alde egiteko prest gaudenak”.

Aurten gainera, Herrira plataformarekin elkarlana egin du taldeak. “Iaz egindako hamabostaldia ostean, balorazioa egin eta Herrirarekin koordinatzeko erabakia hartu genuen”, adierazi digute.

Euskal Presoen egoera

Honela bi taldeek indarrak batu eta euskal presoen egoera eta bereziki Lasarte-Oriako presoen egoera salatu eta gogora ekarri nahi dute.

Izan ere, beheko taulan ikusi daitekeen bezala, sakanaketa politikaren ondorioz lasarteoriatar guztiak Euskal Herriatik kanpo daude, horietako seik hogeitau urte baino gehiago daramatzate kartzelan eta bost herritarrek 197/2006 doktrina edo “biziarteko zigorra” dute.

Eta honetaz gain, egun



laz irakurle ugari izan ziren oholta gainean, argazkian Amaia Agirre bertsolaria.

dauden 142 euskal preso gaitzen artean, Ibon Fernandez herritarra aurkitzen da.

Espetxe egoerak horrela ezin duela jarraitu salatu, euskal presoek eskubideak dituztela ohartarazi eta gatazka honi konponbidea jartzeko bidea aldarrikatzen dute.

Ekimenak

Horretarako, bi taldeek hainbat ekintza antolatuko dituzte Eguberrietan.

Berrikuntza gisa, Presoen lagunak taldeak herritarrek bildu nahi dituen flash-moba antolatu du, abenduaren 23an.

“Okendo plazan, 13:00etatik aurrera, izango da eta urdinez joan behar dira parte hartzaileak. Txarra egin gero Loidi-Barrenko pilotalekuan izango da”, aurreratu dute.

Koreografia ikasi nahi duten herritarrek “Harresi guztien gainetik” facebook kontuan aurkitu dezakete taldeak prestatutako bideoa.

Hurrengo entseguen data ere gogorarazi nahi dituzte, “bihar, abenduaren 4a eta abenduaren 18an trinketea, 18:00etatik aurrera izango dira”.

Era berean, Herrirak antolatuko dituen ekintzak egitarauan txertatuko dituztela jakinarazi du taldeak eta urtarriko Manifestaldi nazionalen ere izango direla.

Olerki irakurketa

Honetaz gain, oraindik zehaztu gabeko datan, “Barrura begiratzeko leihoak” filma eskainiko dute eta urtarilaren 4ean, 19:30etik aurrera, olerki irakurketa izango da.

Lan handia dago emanaldi honen atzean eta talde desberdinak dagoeneko lanean ari direla aipatu digute.

Honela Espainia, zein Frantziako espereetatik idatzitako testuak irakurriko dira eta ez dira herritarrenak bakarrik izango, “Kartzelak agintzen duen geografia izaten da hori. Ondoko presoarekin harreman asko izaten da eta. Esate baterako, Aitzol Iriondoaren ondoan dagoen Jurgi gurea egin genuen hasieratik”, adierazi dute.

Izan ere, “emanaldian sortzen den edo txalo bidez jasotzen dugun emozioa, edo ondoren eurekin trukitzen ditugun inpresioak zuzenak eta barruraino iristen diren horietakoak dira. Eta badakigu indar horrek olatu handienak sor ditzakeela”.

LASARTE-ORIAKO PRESOREN EGOERA

<p>Ina Orotegi Obxandorena 26 urte kartzelan Doktrina 197/2006 - 30 urte Carabanchel, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, A Lama. Gaur egun, Zuara - 290 km</p>	<p>Mixel Turrientes Ramirez 26 urte kartzelan Doktrina 197/2006 - 30 urte Carabanchel, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Langraitz, Martutene. Gaur egun, Herrera de la Mancha - 690 km</p>	<p>Xanti Arrospide Sarasola 25 urte kartzelan Doktrina 197/2006 - 30 urte Fresnes, Saint Martin de Re, Osny, Bois D'Arcy, Fresnes, Soto del Real, Almería, Valdemoro, Almería, Valdemoro. Gaur egun, Zuara - 290 km</p>	<p>Xabier Gallaga Ruiz 15 urte kartzelan Fresnes, Muret, Fresnes. Soro del Real, Córdoba-Alcolea, Soto del Real. Gaur egun, Córdoba-Alcolea - 850 km</p>	<p>Pelo Eskisabel Urtuzaga 7 urte kartzelan Fresnes, Villefranche-Sur-Saone, Fresnes. Gaur egun, Clairvaux - 970 km</p>
<p>Kepa Rezabal Zurutuza 26 urte kartzelan Doktrina 197/2006 - 30 urte Alcalá Meco, Jerez de la Frontera. Algeciras, Tenerife II, Zamora, Topas, Langraitz, Valladolid. Gaur egun, Monterroxo - 700 km</p>	<p>Niko Francisco Rodriguez 25 urte kartzelan Doktrina 197/2006 - 30 urte Paue, Burdeaux, Tule, Poitiers, Gradignan, Fresnes, Carabanchel, Alcalá. Gaur egun, Herrera de la Mancha - 690 km</p>	<p>Juankar Balerdi Iturralde 23 urte kartzelan Bisak egiteko kaxxoak Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Carabanchel, Ocaña I, Iruña, Ocaña II, Valdemoro, Puerto I, Valdemoro, Sevilla II, Valdemoro, Almería, Jaen. Gaur egun, Huelva - 1000 km</p>	<p>Ibon Fernandez Iradi 9 urte kartzelan - Gabro 201 lan, Valdemoran, zortzi hilabete zain erresonantzia magnetikoa egiteko Fleury Merogis, Bois D'Arcy, Fresnes, Lannemezan, Fresnes, Lannemezan, Soto del Real, Valdemoro, Estremera. Gaur egun, Lannemezan - 230 km</p>	<p>Aitzol Iriondo Iartza 4 urte kartzelan Gaur egun, Bois D'Arcy - 854 km</p> <p>Rafa Diez Usabiaga 3 urte kartzelan Soto del Real, Estremera, kaleratua, Soto del Real. Gaur egun, Dueso - 165 km</p>



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Xabier Etxezarreta Ehiztaria eta harakina

“Zakurra ni baino hobea da ehizan”

Xabier Etxezarreta hirugarren izan da Gipuzkoako Oilagor Ehiza txapelketan azaroak 11n Euskal Herriko txapelketan ere lehen postutik oso hurbil izan da aurreko asteburuan

Leitzarango basoetan aurreko bi asteburuetan jokatu diren Gipuzkoako eta Euskal Herriko Oilagor Ehiza txapelketetan lan bikaina egin dute Xabier Etxezarreta harakinak eta Truk zakurrak. Hirugarrenak izan ziren Gipuzkoakoan azaroaren 11n eta bosgarrenak Euskal Herrikoan azaroaren 18an. Txapelkunek oilagor bana bota zuten eta lasarteoriatarrek ere bat bota zuen txapelketa bakoitzean. Gipuzkoako txapela eskura izan zuen gainera, beste oilagor bat ere altxa zuelako, baina ez zuen tiroan asmatu eta ihes egin zion. Astelehen honetan beste aukera bat izango du Truk zakurrak Nafarroaren Egunean herrialde honetako txapelketan parte hartuko du eta.

Jon ALTUNA IZA

Oso oilagor gutxi ehi-zatu da Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetan, bost oilagor bota dituzte txapelketa bakoitzean eta aipagarria da Xabier Etxezarreta lasarteoriatarrek bietan bat bota duela, txapelkunek beste, alegia. Berdinketa dagoenean oilagorra azkena ehizatzen duena izaten da garailea eta berak baino beranduago bota zuten Ezkioko Asier Sopupek Gipuzkoako Txapelketan eta Durangoko Eugenio Solagaistua Euskal Herrikoan. Etxezarretak bota zuen txapelketako lehen oilagorra, goizeko 9:53en, baina, ez zuen bigarrenik topatu eta, saiatu bada ere, ez du, beraz, hain gogoko zuen txapelik lortu.

Noiztik zabilta oilagorretan?

14 urte nituenetik. Aitarekin hasi nintzen. Gehienbat Huescan ibiltzen gara, gure mendian, gu bakarrik, lasaiago. Oilagor gehiago daude han.

Zenbat botatzen dituzu urtean?

Urtearen arabera aldatzen da, baina 50-100 oilagor inguru, ia denak han. Hemen jende asko ibiltzen da eta gainera kanpoan hiruzpalau egunean ibiliz gero, zakurrak oso nekaturata etortzen dira eta atsedena ematen diegu berriz joateko.

Txapelketetan ale gutxi bota dira. Normala al da hori?

Gutxi da, iaz, Gipuzkoakoan 19 oilagor bildu ziren denen artean eta aurten bost. Paseko hegaztia da eta aurten nonbait oso berandu dator oilagorra. Huescan bi astetan zortea izan dugu eta 39 bota ditugu.

Gaur lehen baino oilagor gutxiago pasatzen al da?

Nire ustez gutxiago etortzen da. Jende asko kanpora joaten da oilagorretara.

Zergatik etortzen da gutxiago?

Modan dago oilagor ehizara Bielorrusiaraino joatea eta han sarraskiak egiten dituzte. Adibidez aste betean ehun oilagor botatzen dituzte, eta beraz ehun gutxiago datoz.

Herrialde horietan negoziari begira daude eta ez dituzte debekatuak errespetatzen. Hemen otsailean itxi egiten da oilagorren ehiza eta han mar-txoan ere ehizan aritzen dira.

Hemen oilagorretarako tarte motza da beraz?

Bai urrian hasi eta urtearen arabera, urtarrean edo otsailean amaitzen da.

Gipuzkoako txapelketan ia ia txapelkun izan zinen?

Bai, lehenengok oilagor bana bota genuen baina beranduen botatzen duenak irabazten du. Batzuek ez dute hori ulertzen, uste dute oilagorra lehenengo harrapatzen duenak izan beharko lukeela garaile, baina ez, eta badu bere logika. Gutxi gorabehera badakigu mendian oilagorra non dagoen, eta aurreneko momentuan bertara joan eta botatzea da errazena. Zailagoa da gero botatzea.

Aukera izan zenuen txapela irabazteko ere?

Bai, beste oilagor bat botatzeko aukera izan



Xabier Etxezarreta eta zakurrak, Huescako entrenamenduan botatako 17 oilagorrek. Hurrengo astean beste 22 bota zituzten. Hemen baino oilagor gehiago pasatzen da han.

Elkarrizketa oso osorik txintxarri.info webgunean

nuen, eta alde egin zidan. Tiro egin eta ihes egin zuenean, nirekin zihoan juezari esan nion, “hor joan zait txapelketa”.

Bazenekiten gutxi bota zirela?

Bai, entzun egiten dira tiroak.

Zer moduz Euskal Herrikoan?

Euskal Herrikoa errazagoa da ehiztari gutxiago gaudelako. Txapelkunak oilagor bat bota zuen, eguerdian, zorte handiz bere parean aterata. Lehenengo bota nuen nik eta bosgarrena izan naiz. Ez da oso bidezkoa, nire ustez zakurrak bilatutako eta altxatutako oilagorrek balio handiagoa eduki behar luke. Azken finean, hori da ehiza.

Zakur ona behar da, ezta?

Zakurra ehiztaria baino hobea dut zorionez. Ni baino hobea da Truk. Iaz lagun bati utzi nion eta Nafarroako txapelketa irabazi eta Espainiakoan bosgarren egin zuen. Aurten ere, astelehenean Xabier Egunean parte hartuko du Nafarroakoan.

Bi hilabeterekin hartu nion lagun bati, etxean hazi dut eta ondo dabil. Gogotsu. Nik uste aurtengo eta hurrengo urteak dituela onenak, 4-5 urterekin dira hoberenak. Gero eta zale-tasun eta oilagor gehiago dauka, topera dabil. Ea zortetik duen Nafarroako txapelketan.

Ez da erraz erraza oilagorren ehiza, ezta?

Oilagorra mendian ondo ezkutatuta egoten da, bilatu eta asko ibili behar da harrapatzeko.

Eta hainbeste ehiztariaren artean ez al dago arriskurik?

Ez mendia oso handia da. Hori bai, ezagutzen dugu eta denok jotzen dugu gutxi gorabehera toki berberera. Gero, han ez badago, zabaldu, ea galdutakoren bat bilatzen dugun...

Gabonetako menuan sartzen al duzue oilagorra?

Bai. Ez gara ehiza jateko oso zaleak, baina jaten dugu etxean.

Harategian saltzen al duzu?

Ez, ezin da saldu. Debekatua dago. Lagunartean jaten ditugu edo ehiza apreziatzen dutenei oparitu egiten diet.

Oilagorrik ez, baina bertako zekorrek saltzen dituzu, ezta?

Bai, Telleri baserrikoak. Oso ondo hazten ditu txekorrek Pedro Arteagak.

Euskararen Maratoian eman zenuten probatzeko bat...

Bai, jendea gustura atera zela esan ziguten, eta oso inportantea, denentzat heldu zen. Polit-a da horrelako gauzak egitea.

Beste zaletasun batzuek ere badituzu, nik dakidala palan jokatzea eta zaldian ibiltzea...

Umeengatik dauzkate hiru zaldi, ume bakoitzak bana, nirea eta asto bat ere bai. Etxe inguruan ibiltzen gara.

Belaunetik operatu naiz aurten, frontoia oso txarra dela esan didate eta gutxitan ibiltzeko palan. Azken bi urtetan palan txapelkunorde izan naiz, eta lau txapel ere badauzkat, baina ehiza daukat gogoan.

Niri gehienbat zakurrak gustatzen zaizkit. Nigandik 10 metrora lo egiten dute, harreman handia dut zakurrekin, egunero egunero nago beraiekin eta gozatu egiten dut.

Gainera poz pozik nago, aurten ehizan hasi diren bi zakur hazi ditudalako. Txoratuta naukate. Hori gustatzen zait.

Guretzat ehizatzen dugun kantitate ez da izaten garrantzitsua kalitate baizik, hau da, oilagorra nola ehizatzen dugun.



Etxezarreta harakina, oilagorra eskuan duela. Udazken eta neguan, garai honetan, oilagorretan ibiltzen da Huesca aldean.

Agenda

Larunbata 8, 20:00etan, Mendi Kafe-rock



Estiloak nahasten

Azkaiter Pelox & The Road Band-ek "Zamburleiker" diskaren aurkezpena egingo du, Kultur kale zikloaren barruan. Maiatzaren 12an aurkeztu zuen Bergaran eta geroztik, herriz herri dabil diska berriko doinuak eskaitzen. Estilo derberdin asko entzun ahalko dira emaldian, hala nola, bossanova, pop eta soul nahasketa, funky, rock-and-rolla eta bluesa.

Diaporama

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Asteazkena 12, 21:30ean

Ostadar SKT-ko mendi saileko lagunek Atlas mendilerroko gailurretara egindako bidaia azalduko dute. Ttakin K.E.-k antolatutako diaporama saileko saioa da.

Astigarraga

Hitzaldia

ARROBITXULO BIDEA 43KO LOKALEAN

Astearte 4, 18:30ean

"Nola aukeratu jostailu egokiak" hitzaldia eskainiko da.

Dokumentala

KULTUR-ETXEAN

Larunbata 8, 18:00etan

"Barrura begiratzeko leihoak" dokumentala eskainiko da. 5 euskal presoren istorioz osatuko proiektioa eta ondorengo solasaldia. Sarrera, 3 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 13, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, Jon Maia bertsolariak zuzendutako "Gazta zati bat" dokumentala eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro. Euskaraz

Igandea 16, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Campanilla y el secreto de las hadas" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak

leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 16, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, Jon Maia bertsolariak zuzendutako "Gazta zati bat" dokumentala eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,50 euro; internetez, 5 euro. Euskaraz



Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 15, 18:30ean

Zero Sette akordeoi orkestraren 25. Urteurreneko ospakizunekin amaitzeko, Piazzola Project-en emaldia izango da. Piazzola Project kontzertu komentatu bat da. Tangoak, milongak eta beste hainbat obra entzuteko aukera izango da kontzertu honetan.

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Igandea 16, 12:30ean

Alboka Abesbatzak gabonetako kontzertua eskainiko du Comillas-eko "Brumas Norteñas" abesbatzarekin batera.

Andoain

Musika

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 14, 21:30ean

Txalo produkzioa-k "Crimen Perfecto" antzezlan eskainiko du. Sarrera, 15 euro. Gaztelaniaz.

Larunbata 15, 20:00etan

Jabier Muguruzak "Bikote bat" emaldia eskainiko du. Euskal poeta handien testuetatik abiatzen diren kantak. Sarrera, 10 euro.

Herritarren txokoa

Batxilergoko tituluak

Lasarte-Usurbil Institutuak 2010-2011 ikasturtean Batxilergoko ikasketak amaitu zituzten ikasleei jakin arazten die tituluak eskuragarri dituztela ikasketeko idazkaritzan.

Aterpeko Loteria

Aterpea Merkatarien Elkartek Gabonetako Loteria jarri du salgai. Loteriako txartelak elkartea osatzen duten komertzioetan daude eskuragarri.

Lasartearra elkarteko loteria

Lasartearra elkarteak bazkide eta elkarteko lagunei gogora arazten die, Gabonetako Loteria salgai duela. Loteria txartelak eskuratu nahi dituzten herritarrek elkarteko bulegora, Erribera kalea 10 atzealde, hurbildu behar dira astelehenetik ostiralera 18:00etatik 19:00etara.

Euskararen 8. Maratoian aurkitutako gauzak

Euskararen 8. Maratoia amaitu eta garbiketa lanetan, honako gauza hauek aurkitu dira: jertse beltza, deuchland idatzia duen sudadera bat

eta aterki gris bat. Gauza hauen jabeak Ttakin elkartetik hurbil daitezke jasotzera.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak, ezkontza eraztuna, eguzkitako betaurreko, bi telefono mugikor, MP3 bat, mikrotxipak dituen plaka bat eta emakume beroki bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Korrika egiteko talde amateurra

Lasarte-Orian korrika egiteko talde amateurra sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Hitzordua, ateri dagoen astelehenetan 20:00etan Hipodromoko zubian. Barraskilo eta bareak animatu!

Sarean

Durangoko Azoka Sarean

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka Euskal Herriko handiena eta garrantzitsuenak da. Euskal Herri osoko argitaletxeak batzen dira azokan, bai nobedadeak bai aurreko urteetako liburu eta diskoak salgai jartzera.

Azokak interneten duen web gunean, www.durangokoazoka.com aurtengo 57. edizioko berri guztiak eta nondik norakoak ezagutu ahal dira Durangora hurbildu aurretik.

Izan ere, azoka osatzen duten gune bakoitzeko informazioa eta abenduaren 6tik 9ra izango duten egitarau zabalda aurki daiteke bertan. Aurten, 300 ekitaldi inguru izango dira zortzi espazio desberdinetan. Liburu eta diska aurkezpenak, hitzaldiak, haurrentzako tailerrak, filma laburrak, bideo proiektioak... eta, esate baterako, abenduaren 6an, 12:00etataik aurrera Saguganbara gunean Pirritx, Porrotx eta Marimototsek "Sentitu, pentsatu, ekin!" disko sinfonikoa, "Zazpikoloroa" DVD-a, eta "Zazpikoloroa" eta "Maite Zaitut" ipuinak aurkeztuko dituzte.

Honetaz gain, Euskal argitaletxeek azokan aurkeztuko dituzten liburuen eta diskoen katalogoa, 420 izenburu berri, ere aurki daiteke bertan eta liburu edo diska baten bila bazabiltza ere aurretik honen berri aurkitu dezakezu web orrialde honetan.

Era berean, web orrialdean azokara nola iritsi azaltzen da eta azokako mapa edo erakusleen gida eskuragarri dira bertan. Beraz, animatu eta murgildu azokako web gunean.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko eguna



**Ez da egun bat,
bizitza osoa
baizik**



Lasarte-Oriako
Udala